


VILLA JUR
D MAILA

JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 70



Egile ezezaguna, 1900 inguruan

Deskribapena

Etxea oso eraldatuta dago, baita bao batzuen zabalerari dagokionez ere, baina hotel frantsesaren irudiari eutsi dio bai profilean bai bolumen kubikoan. Oinplano ia-ia karratuaren ereduari segitzen dio, hiru bao-ardatz dituela fatxadako, beheko eta lehen solairuak eta mantsardapeko teilatupeak osatu profilarekin batera. Basamentu txiki baten gainean altxatzen da. Sarrerako eskalinata bat dauka, horretan aurrera egiten duela sarrerako atariak edo begiratoki poligonal gisa gehitutako beste batek, balkoiz errematatuta biak.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jatorrizko proiektuari erantsitako atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadetako emokatu eta harrizko erliebe guztiak. Sarrerako ataria.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.